

**1** Metodoaren sintesi orokorra

**Ardatzak** (1) **Edukia, Moldea eta Zuzentasuna** (E - M - Z). Guztira, 10 puntu.

<b>Edukia</b>	2,5	Atazan eskatzen denari erantzunez, <b>informazio corpus</b> bat: > ideiak, informazioak, datuak, argudioak, adibideak...
<b>Moldea</b>	2,5	Edukia azaltzeko erabilitako <b>baliabideak</b> (+ aurkezpena): > estiloa eta erregistroa: naturala, ulergarria, pertsona (3.a, gu / ni, zu?)... > testu egituratua (lerrokadak), kohesionatua (lokailuak, antolatzaileak), landua...
<b>Zuzentasuna</b>	5	Ortografia > hitzak, letra larriak, zenbakiak, datak, zeinuak... Sintaxia > deklinabidea, aditza, komunztaturak, egiturak... Lexikoa > erdarakadak, trakeskeriak...

**Markak** (2) Bereizita **ortografikoak / sintaktikoak** eta **arruntak** (0,5) / **larriak** (1)

Markak	Esanahia / Balioa	Adibideak	e	kal
O R T O G R	Akatsa: hitzak, zeinuak, zenbakiak, siglak... (0,5)	eskeini daitekela / gauzak, ... / 202-an	1 - 1,5	<b>5</b>
	Akats <b>larria</b> : hitz arruntak, letra larriak... (1)	saia da ongi ezatea / gipuzkoan	1,55	4,75
	Jada markatua: errepik. (ø)	eskeintzen dutera ordea ez da	1,6 - 2	4,5
S I N T A X	Akatsa: sint., lex... (0,5)	garapenaren bidean / beste egunean	2,05	4,25
	Sintaxi akats <b>larria</b> (1)	ni uste dut / gaudelaren ustea	2,1 - 2,5	<b>4</b>
	Ez txukuna: egit., lex... (ø)	arrisku osoan / beranduago esan zion	2,55	3,75
	Zati seinalatua: egitura...(ø)	ez dago [zertan esan beharrik]	2,6 - 3	3,5
Lerrokada aldaketa (0,5)	Zerbait falta da (0,5) Zer? Ene!	3,05	3,25	
			3,1 - 3,5	<b>3</b>
			3,55	2,75
			3,6 - 4	2,5
			4,05	2,25
			4,1 - 4,5	<b>2</b>
			4,55	1,75
			4,6 - 5	1,5
			5,05	1,25
			5,1 - 5,5	<b>1</b>
			5,55	0,75
			5,6 - 6	0,5
			6,05	0,25
			6,1 - >	<b>0</b>

**Akatsak** (2) Akats erdiak (arruntak) eta osoak (larriak)

- > Ortografian, akats errepikatuak (hitz berbera), behin zenbatuko dira. Zeinuenak, beti. Sintaxian, denak kontatuko dira (— eta ==), errepikatuak izan arren.
- > Balioak: akats **arruntek**, puntu erdi (0,5); akats **larriek**, puntu osoa (1). Adibidez: 17 akats arrunt (8,5) + 6 akats larri (6) = 14,5 akats guztira.

**Zuzentasuna** (2) Formula baten bidez

Akats kopurua *bider* indizea *zati* hitz kopurua. Horrela lortuko dugu eskalako emaitza (**e**) eta, ondorioz, zuzentasunari dagokion kalifikazio (**kal**) **objektiboa** eta **proporzionala**.

$$\frac{\text{Akats kopurua} \times (\text{indizea})}{\text{Hitz kopurua}} = e > \text{kal}$$

Adib.  $\frac{14,5 \times 100}{314} = 4,6 > 1,5$

Adibidea: 314 hitz. Akats kopurua (erdiak + osoak): 14,5. Indizea, 100 (erdikoa). Indizea zenbat eta altuagoa (zailagoa) izan, orduan eta zorrotzagoa kalifikazioa. Formula aplikatu ahal izateko, idazlaneko hitz kopurua jarrita eduki behar dute ikasleek.

Hitzak 314  
Akatsak 14,5

**Gaınditzeko baldintza** E - M - Z ardatzetako batean ere ezin da **0** atera. Hori gertatuz gero, gehienez: 4.

**ZUZENKETA:** hezkuntza arautuan, hori da azken lana, egindakotik ikasi eta hurrengoak txukunago idazteko. Behin idazlana markekin eta E-M kalifikatuta, hurrengo probetan **zuzentasun maila hobetzeko**, ikasleei berridazteko aginduko zaie, markatutako **akatsak zuzentzeko**; alegia, idazlana berdin-berdin idatziko dute berriz, baina akatsik gabe; irakasleak lagundu beharko die ulertzen ez dutena argitzen (markaren batzuk). **Berreskurapen** gisa erabil daiteke, zuzenketari puntuazio bat emanez (adib. 2 puntu; gaizki zuzendutakoek penalizazioa). Bi idazkiak erkatu eta Zn meta daitezke puntu lortu berriak, baina beti ere guztira gehienez 5.

1 Aplikazioa: DBH bigarren zikloan nahiz goragoko mailetan (Batxilerrak, Lanbide Hezkuntza, Unibertsitatea...)  
2 Aplikazioa: DBH bigarren ziklotik gora. B2, C1 mailetan.